



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZEN BALIOKIDEAK DIREN ATZERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMETAKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXEETAN GAZTELERAZKO ETA EUSKARAZKO HIZKUNTZA ETA KULTURAKO IRAKASKUNTZEN CURRICULUMA ETA GUTXIENEO ORDUTEGIA FINKATZEKO, 2012KO MARTXOAREN 12KO AGINDUA ORDEZKATZEKO.

Espainiako atzerriko ikastetxeen araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuak araubide juridikoa arautu zuen atzerriko herrialdeetako hezkuntza-sistemei dagozkien unibertsitateaz kanpoko mailletako irakaskuntzak Espainian ematen zituzten ikastetxeentzat, ikastetxe horien titularraren nazionalitatea edozein izanik ere. Gainera, Espainiako eta Autonomia Erkidegoko kulturari buruzko ezagutzak txertatzeko eskakizuna ezarri zuen, Geografia eta Historiaren edukietan oinarrituta.

Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko ikastetxeek, maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren ondorioz, urteak daramatzate ikasketa-planean bi hizkuntza ofizialen beharrezko ezagutza jasotzen, honako curriculumak erreferentziatzen hartuta: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Lehen Hezkuntzako Gizarte Zientziak eta Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Geografia eta Historia.

Maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuan xedatutakoa arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko martxoaren 12ko Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, atzerriko hezkuntza-sistema bateko irakaskuntzak ematen zituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakaskuntzak ezarri eta arautu ziren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (abenduarien 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua), eta Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuek ezarritakoarekin bat etorritik, curriculum horiek egokitu behar dira unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak emateko baimena duten atzerriko ikastetxeen baldintza espezifikoetara, maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuaren 3.1.a artikulua aitpatzen dituenen parekoetara.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemailearen proiektua administrazio eskudunaren web-atariaren bidez kontsulta publiko bat egitean datza, eta, bertan, etorkizuneko arauak eragin ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia jasotzeko.

Kontsultak alderdi hauek bildu behar ditu:

- A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- B) Ekimena onartzeko premia eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Horregatik, xedapen orokorra egin aurreko kontsulta-izapidea bete nahi da, arauak eragiten dien herritarrek eta gainerako erakundeek parte hartzeko eta planteatzen den aruari ekarpenak egiteko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta instituzio, entitate edo elkarte guztiei irekitzen zaie.



- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egoki irizitako iradokizun edo oharrak aurkez ditzaten.

Beraz, kontsulta publikoaren izapide hori da, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.1 artikulua arautzen duen hasiera-fasean.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko irakaskuntzen baliokideak diren atzerriko hezkuntza-sistemetak irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza eta kulturako irakaskuntzen curriculum eta gutxieneko ordutegia ezartzeko xedapen-proiektu orokorra egin baino lehen, jendaurrean jartzea.

Bigarrena. – Arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek, nahi izanez gero, hamar egun balioduneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak emateko.

Jokin Bildarratz Sorron

HEZKUNTZASAILBURUA